Sin./Fdo.: LAURA MARIN SODUPE 2024-11-14
INDARKERIA MATXISTATIK BABESTEKO ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DE PROTECCIÓN FRENTE A LA VIOLENCIA MACHISTA
Sin./Fdo.: MANUEL OSCAR SECO REVILLA 2024-11-14
GIZARTE INKLUSIOA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE INCLUSIÓN SOCIAL
Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2024-11-14
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-11-21
GZko 20.gaia onartuta - Aprobado, asunto 20) de OD



**ERABAKIA,** 2023ko azaroaren 30ean Bizkaiko Foru Aldundiak eta **ASOCIACIÓN INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI, EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTOA, IRSE-EBI ELKARTEAK** (IFZ: G48242259) sinatutako lankidetza-hitzarmenaren aldaketa onartzen duena. Hitzarmenaren xedea **INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI BALORAZIO ETA ARRETA ESPEZIALIZATUA EMATEKO ZERBITZUA ematea da.**

**ACUERDO** por el que se aprueba la modificación del Convenio de colaboración suscrito el 30 de noviembre de 2023 entre la Diputación Foral de Bizkaia y la **ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI (NIF G48242259) PARA LA PRESTACIÓN DE UN SERVICIO DE VALORACIÓN Y ATENCIÓN ESPECIALIZADA A MUJERES VÍCTIMAS DE LA VIOLENCIA MACHISTA**

2023ko azaroaren 30ean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluan gai-zerrendako 22. zenbakiko gai moduan, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Asociación Instituto de Reintegracion Social de Euskadi, Euskadiko Birgizarteratze Institutoa, IRSE-EBI elkartearen artean sinatu beharreko lankidetza-hitzarmenaren testua onartu zen. Hitzarmen horren xedea indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei balorazio eta arreta espezializatua emateko zerbitzua ematea da.

En fecha 30 de noviembre de 2023 como asunto nº 22 del Orden del Día se aprobó en Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia el texto del Convenio de Colaboración a suscribir entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Asociacion Instituto de Reintegracion Social de Euskadi para la prestación del servicio de valoración y atención especializada a mujeres víctimas de la violencia machista.

Hitzarmena 2023ko azaroaren 30an sinatu zuten.

El 30 de noviembre de 2023 se suscribió dicho Convenio.

Hitzarmenaren xedea INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI BALORAZIO ETA ARRETA ESPEZIALIZATUA EMATEKO ZERBITZUA ematea da. Hizarmen horren barruan honako zerbitzu hauek eskainiko dira:

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen babesgabetasuna baloratzeko laguntza teknikoa.
- Egonaldi ertaineko egoitza-harrerera.
- Komunitatean esku hartzea.

El objeto del convenio es la prestación de SERVICIO DE VALORACIÓN Y ATENCIÓN ESPECIALIZADA A MUJERES VÍCTIMAS DE LA VIOLENCIA MACHISTA, y en el mismo se prestarán los siguientes servicios:

- Apoyo técnico para la Valoración de la Desprotección de las Mujeres Víctimas de Violencia Machista.
- Acogimiento residencial de media estancia.
- Intervención en el ámbito comunitario.

Erakundearekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin izan da egonaldi ertaineko egoitza-harreraren prestazioa ematen hasi.
Egonaldi ertaineko egoitza-harrerak 30 plazako

Por razones ajenas a la entidad y a la Diputación Foral de Bizkaia no ha sido posible iniciar la prestación del acogimiento residencial de media estancia.

El acogimiento residencial de media estancia

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

estaldura ezartzen zuen.

Egoitza-plazarik ez dagoenez, arreta komunitarioko plazak gehitu behar izan dira, ostatu-laguntzarekin eta ostatu-laguntzarik gabe, bai eta arreta ematen duten langileak ere.

Aldaketa honen bidez, laguntza komunitarioko arreta 15 plazatan zabaltzen da, eta guztira 35 plaza eskiniko dira. Handitze hori 2024ko uztailaren 1etik aurrera ezarri zen.

Era berean, Egoitza Zerbitzua ireki arte, 2024ko uztailaren 1etik 2025eko maiatzaren 31ra arte, Arreta Komunitarioko Zerbitzua beste 8 plazaz handitu behar da, eta plaza horiek ostatu-laguntza izan behar dute.

Azken batean, hitzarmenaren prezioa aldatzeko sinatutako Hitzarmena aldatu behar da, Egoitza Zerbitzuaren hasiera-data (lehen 2024ko urtarrilaren 1a zen, eta kronograma berriarekin, zerbitzua 2025eko ekainaren 1ean hasiko da), gauzatu gabeko zenbatekoengatik, egoitza-baliabideak sortutako gastuengatik, Arreta Komunitarioko Zerbitzua handitzeagatik eta Hitzarmenari atxikitako langileak aldatzeagatik.

Aldaketa hau Bizkaiko Foru Aldundiak duen betebeharrak justifikatzen du, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezartzen baitu indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubide subjektiboa dela arreta integrala eta berehalakoa jasotzea.

ASOCIACIÓN INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI, EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTOA, IRSE-EBI elkarteak, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren oniritziarekin, Arreta Komunitarioko Zerbitzuaren estaldura zabaltzen hasi zen, hain zuzen ere 2024ko uztailaren 1etik aurrera, eta Egoitza-zerbitzua abian jartzeak (horregatik, aldaketak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu atzeraeraginezko ondorioak) eta langileak handitzeak arazoak sortu dituenez ondorioz uste da beharrezkoa dela hitzarmenaren indarraldia urtebete luzatzea. Prestazio horiek

establecía una cobertura de 30 plazas.

La no disponibilidad de las plazas residenciales, ha obligado a incrementar las plazas de atención comunitaria, con y sin apoyo alojativo, y así como el personal dedicado a su atención

Con la presente modificación se amplia la atención de apoyo comunitario en 15 plazas, siendo 35 el total de plazas de cobertura, siendo la fecha en la que se implemtentó dicha ampliaciaón el 1 de julio de 2024.

Asimismo se ha considerado que hasta la apertura del Servicio Residencial, desde el 1 de julio de 2024 hasta el 31 de mayo de 2025, el Servicio de Atención Comunitaria debe ser ampliada por 8 plazas adicionales, teniendo dichas plazas apoyo alojativo.

En definitiva, se debe modificar el Convenio suscrito para modificar el precio del convenio, fecha de inicio del Servicio Residencial (anteriormente era el 1 de enero de 2024, y con el nuevo cronograma, el servicio comenzará el 1 de junio de 2025) por los importes no ejecutados, por los gastos generados por el recurso Residencial, la ampliación del Servicio de Atención Comunitaria, la modificación del personal adscrito al Convenio.

Dicha modificación se justifica por la obligación que tiene la Diputación Foral de Bizkaia, dado que la Ley de Servicios Sociales establece que es un derecho subjetivo de las mujeres víctimas de la violencia machista el de recibir una atención integral e inmediata.

La ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI, con el visto bueno de la Dirección General de Inclusión Social comenzó a prestar la ampliación de la cobertura del Servicio de Atención Comunitaria desde 1 de julio de 2024, y dada la problemática de la puesta en marcha del Servicio Residencial (es por ello que la modificación tiene fecha de efectos retroactivos desde el 1 de nero de 2024), ampliación del personal, y por lo que se considera necesario ampliar un año de vigencia del convenio, dichas prestaciones tienen un coste de SEISCIENTOS CINCUENTA Y TRES MIL OCHOCIENTOS OCHENTA Y OCHO EUROS CON

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAIKA ZENTIMO (653.888,71 €) kostua dute.

SETENTA Y UN CÉNTIMOS (653.888,71€).

Hitzarmenaren xede diren ekintzak 2023ko abenduaren 1etik 2025ko abenduaren 31ra bitartean egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak gehienez ere aurreikusi duen aurrekontua, aldaketa honekin, BI MILIOI ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (2.753.736,62 €) da.

*Aurreikusitako aurrekontua honako urterokoei dagokie:*

El presupuesto total máximo previsto para la realización de las acciones objeto del Convenio en el periodo 1 de diciembre de 2023 a 31 de diciembre de 2025 a cargo de esta Diputación Foral de Bizkaia con la presente modificación es de DOS MILLONES SETECIENTOS CINCUENTA Y TRES MIL SETECIENTOS TREINTA Y SEIS EUROS CON SESENTA Y DOS CÉNTIMOS (2.753.736,62 €).

*El presupuesto previsto responde a las siguientes anualidades:*

| HITZARMENTAREN GUZTIZKO PREZIOA / PRECIO TOTAL DEL CONVENIO | | | |
|---|---|---|---|
| URTEA / AÑO | HASIERAKOA / INICIAL | ALDATUTA / MODIFICADO (A- /A+) | EGUNGOA / ACTUAL |
| 2023 | 297.250€ | 0€ | 297.250€ |
| 2024 | 1.802.597,91 € | - 861.382,76 € | 941.215,15 € |
| 2025 | 0€ | +1.515.271,47 € | 1.515.271,47 € |
| GUZTIRA/TOTAL | 2.099.847,91€ | + 653.888,71 € | 2.753.736,62 € |

Hitzarmenari atxikitako langileak, prestazioak eta baliabide materialak aldatzen direnez, eta baita hitzarmenaren indarraldia ere, eta aldaketa horiek betebehar ekonomikoak handitzea dakartenez, klausula hauek aldatzea proposatzen da:

- HIRUGARRENA.- Zerbitzua betetzeko gaitasuna
- SEIGARRENA.- Zerbitzuaren ezaugarriak eta baliabide materialak.
- ZORTZIGARRENA.- Giza baliabideak.
- HAMALAUGARRENA.- Alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak.
- HAMABOSTGARRENA.- Lankidetzaren edukia.
- HAMAZORTZIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

3. ERANSKINA- HITZARMENARI DAGOKION DIRU

Dado que se modifica el personal adscrito al convenio, las prestaciones, y los recursos materiales, la vigencia del convenio, y dichas modificaciones suponen un incremento de obligaciones económicas, se propone modificar las siguientes cláusulas:

- TERCERA.- Capacidad de cobertura del servicio
- SEXTA.- Características y recursos materiales del Servicio.
- OCTAVA.- Recursos humanos.
- DECIMOCUARTA- Obligaciones, y compromisos económicos asumidos por las partes.
- DECIMOQUINTA.- Contenido de la colaboración.
- DECIMOCTAVA.- Vigencia del convenio.

ANEXO 3- PRESUPUESTO DE INGRESOS Y GASTOS

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko Foru Arauko 17, 28, 39 eta 66. artikuluetan eta Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duenaren bosgarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoak emandako ahalmenak erabiliz, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatu andreari honako proposamen hau egiten zaio, egokitzat jotzen badu, Bizkaiko Foru Aldundiari aurkez diezaion, aztertu eta onets dezan:

## ERABAKIA

LEHENENGOA.- 2023ko azaroaren 30ean Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Asociación Instituto de Reintegracion Social de Euskadi, Euskadiko Birgizarteratze Institutoa, IRSE-EBI (IFZ: G48242259) elkartearen artean sinatu zen lankidetza-hitzarmenaren aldaketa ONESTEA. Hitzarmen horren xedea indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei balorazio eta arreta espezializatua emateko zerbitzua ematea da.

Hauek dira aldatuko diren klausulak:

HIRUGARRENA.- Zerbitzua betetzeko gaitasuna

SEIGARRENA.- Zerbitzuaren ezaugarriak eta baliabide materialak.

ZORTZIGARRENA.- Giza baliabideak.

HAMALAUGARRENA.- Alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak.

HAMABOSTGARRENA.- Lankidetzaren edukia.

HAMAZORTZIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

3. ERANSKINA- HITZARMENARI DAGOKION DIRU SARRERA ETA GASTUEN AURREKONTUA



En virtud de lo expuesto y vistos los arts.17, 28, 39 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en uso de las facultades conferidas por la Disposición Adicional Quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria en su párrafo nº 1 se eleva propuesta a la Ilma. Sra. Diputada Foral, Titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para que si lo estima pertinente, someta a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia, para su estudio y aprobación, la siguiente:

## ACUERDO

PRIMERO.- Aprobar la modificación del Convenio de colaboración suscrito el 30 de noviembre de 2023 entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Asociacion Instituto de Reintegracion Social de Euskadi (NIF G48242259) para la prestación de un servicio de valoración y atención especializada a mujeres víctimas de la violencia machista.

Las cláusulas objeto de modificación son las siguientes:

TERCERA.- Capacidad de cobertura del servicio

SEXTA.- Características y recursos materiales del Servicio.

OCTAVA.- Recursos humanos.

DECIMOCUARTA.- Obligaciones, y compromisos económicos asumidos por las partes.

DECIMOQUINTA.- Contenido de la colaboración.

DECIMOCTAVA.- Vigencia del convenio.

ANEXO 3- PRESUPUESTO DE INGRESOS Y GASTOS DEL CONVENIO

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**BIGARRENA.-** BIGARRENA.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN konpromisoa da **2023ko abenduaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean** Asociación Instituto de Reintegracion Social de Euskadi, Euskadiko Birgizarteratze Institutoa, IRSE-EBI (IFZ: G48242259) elkarteari gehienez BI MILIOI ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (2.753.736,62 €) ematea indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei balorazio eta arreta espezializatua emateko zerbitzua emateko.

**SEGUNDO.-** La DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA se compromete a aportar la cantidad total máxima de *DOS MILLONES SETECIENTOS CINCUENTA Y TRES MIL SETECIENTOS TREINTA Y SEIS EUROS CON SESENTA Y DOS CÉNTIMOS (2.753.736,62 €)* CANTIDAD EXENTA DE IVA, a la Asociacion Instituto de Reintegracion Social de Euskadi (NIF G48242259) para la prestación de un servicio de valoración y atención especializada a mujeres víctimas de la violencia machista., en el periodo que abarca desde el **1 de diciembre de 2023 hasta el 31 de diciembre de 2025.**

| HITZARMENTAREN GUZTIZKO PREZIOA / PRECIO TOTAL DEL CONVENIO | | | |
|---|---|---|---|
| URTEA / AÑO | HASIERAKOA / INICIAL | ALDATUTA / MODIFICADO (A+) | EGUNGOA / ACTUAL |
| 2023 | 297.250€ | 0€ | 297.250€ |
| 2024 | 1.802.597,91 € | - 861.382,76 € | 941.215,15 € |
| 2025 | 0€ | +1.515.271,47 € | 1.515.271,47 € |
| GUZTIRA/TOTAL | 2.099.847,91€ | + 653.888,71 € | 2.753.736,62 € |

Hitzarmen hau sinatzeak sortuko dituen betebeharrak ordaintzera bideratutako baliabide ekonomikoak Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretatik aterako dira.

Finantza-ekarpena, 2023, 2024 eta 2025 ekitaldietarako aurrekontuetako partida honen kargura egingo da:

**Organikoa: 0902**

**Programa: 232113**

**Ekonomikoa: 23708**

**Proiektuaren zk.: 2022/0117**

Los recursos económicos destinados a sufragar las obligaciones derivadas de la suscripción de este Convenio procederán de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

La aportación financiera se realizará con cargo a la siguiente partida presupuestaria correspondiente a los ejercicios 2023, 2024 y 2025

**Orgánico: 0902**

**Programa: 232113**

**Económico: 23708**

**Proyecto nº: 2022/0117**

**HIRUGARRENA.-** Aldaketa hau indarrean egongo da 2024ko urtarrilaren 1etik 2025ko abenduaren 31ra arte, atzeraeraginezko ondoriekin.

Zerbitzua emateko hitzarmeneko gainerako estipulazioak 2023ko azaroaren 30an sinatutako dokumentuan ezarritako berberak izango dira.

**TERCERO.-**La vigencia de la presente modificación se extenderá desde el 1 de enero de 2024 hasta el 31 de diciembre de 2025, con efectos retroactivos.

El resto de estipulaciones del Convenio para la prestación del servicio serán las establecidas en el documento suscrito con fecha 30 de noviembre de 2023.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

LAUGARRENA.- Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasun Saileko foru diputatua, aipatutako aldaketa sina dezan ahalmena ematea

CUARTO.- Facultar a la Ilma. Sra. Diputada Foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para que proceda a la firma de la mencionada modificación.

Indarkeria Matxistatik Babesteko Atal burua/ La Jefa de Sección de Protección frente a la Violencia Machista. LAURA MARIN SODUPE

*O.E/Vº Bº*

Gizarte Inklusioa Sustatzeko zuzendari nagusia / La Dirección general de Inclusión Social. MANUEL OSCAR SECO REVILLA

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. / De coformidad con el trámite precedente , elévese al Consejo de Gobierno.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua/ La diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. MARIA TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ERANSKINA/ANEXO

2023KO AZAROAREN 30EAN BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ETA ASOCIACIÓN INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI, EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTOA, IRSE-EBI ELKARTEAK (IFZ: G48242259) SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ALDAKETA. HITZARMENAREN XEDEA INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI BALORAZIO ETA ARRETA ESPEZIALIZATUA EMATEKO ZERBITZUA EMATEA DA

MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO EL 30 DE NOVIEMBRE DE 2023 ENTRE DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI (NIF G48242259) PARA LA PRESTACIÓN DE UN SERVICIO DE VALORACIÓN Y ATENCIÓN ESPECIALIZADA A MUJERES VÍCTIMAS DE LA VIOLENCIA MACHISTA

BILDU DIRA

Alde batetik, Mª TERESA LAESPADA MARTINEZ, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatua.

Eta beste aldetik, JUAN LUIS FUENTES NOGALES jauna (NAN zk: 22727697V), INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI-EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTOA ELKARTEAREN (IFZ: G48242259) izenean; erakunde hau Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan 2002ko azaroaren 25ean 359 zenbakiarekin inskribatuta dago.

Bi alderdiek agiri hau formalizatzeko behar den gaitasun juridikoa aintzatetsi diote elkarri eta, ados jarrita, aritzeko eman zaien ordezkaritzan onartu diote elkarri.

SE REÚNEN

De una parte, Dña. Mª TERESA LAESPADA MARTINEZ, Diputada Foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

Y de otra D. JUAN LUIS FUENTES NOGALES con D.N.I. 22727697V, en representación de la ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI, con NIF G48242259, entidad inscrita con fecha 25 de noviembre de 2002 en el Registro Foral de Servicios Sociales con el número 359.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo.

AURREKARIAK

I

2023ko azaroaren 30ean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluan eta gai-zerrendako 22. zenbakiko gai moduan, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Asociación Instituto de Reintegracion Social de Euskadi, Euskadiko

ANTECEDENTES

I

En fecha 30 de noviembre de 2023 como asunto nº 22 del Orden del Día se aprobó en Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia el texto del Convenio de Colaboración a suscribir entre la Diputación

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Birgizarteratze Institutoa, IRSE-EBI elkartearen artean sinatu beharreko lankidetza-hitzarmenaren testua onartu zen. Hitzarmen horren xedea indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei balorazio eta arreta espezializatua emateko zerbitzua ematea da.

Hitzarmena 2023ko azaroaren 30an sinatu zuten.

II

Hitzarmenaren xedea **INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI BALORAZIO ETA ARRETA ESPEZIALIZATUA EMATEKO ZERBITZUA** ematea da. **Hizarmen horren barruan honako zerbitzu hauek eskainiko dira:**

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen babesgabetasuna baloratzeko laguntza teknikoa.
- Egonaldi ertaineko egoitza-harrera.
- Komunitatean esku hartzea.

Erakundearekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin izan da egonaldi ertaineko egoitza-harreraren prestazioa ematen hasi.

Egonaldi ertaineko egoitza-harrerak 30 plazako estaldura ezartzen zuen.

Egoitza-plazarik ez dagoenez, arreta komunitarioko plazak gehitu behar izan dira, ostatu-laguntzarekin eta ostatu-laguntzarik gabe, bai eta arreta ematen duten langileak ere.

III

Hitzarmenean egoitzako 30 plaza eta laguntza komunitarioko arretarako 20 plaza hitzartu ziren.

Aldaketa honen bidez, laguntza komunitarioko arreta 15 plazatan zabaltzen da, eta guztira 35 plaza eskiniko dira. Handitze hori 2024ko uztailaren 1etik aurrera ezarri zen.

Egoitza-baliabidea 2025eko ekainaren 1ean hastea aurreikusten da.

Foral de Bizkaia y la Asociacion Instituto de Reintegracion Social de Euskadi para la prestación del servicio de valoración y atención especializada a mujeres víctimas de la violencia machista.

El 30 de noviembre de 2023 se suscribió dicho Convenio.

II

El objeto del convenio es la prestación del **SERVICIO DE VALORACIÓN Y ATENCIÓN ESPECIALIZADA A MUJERES VÍCTIMAS DE LA VIOLENCIA MACHISTA, y en el mismo se prestarán los siguientes servicios:**.

- Apoyo técnico para la Valoración de la Desprotección de las Mujeres Víctimas de Violencia Machista.
- Acogimiento residencial de media estancia.
- Intervención en el ámbito comunitario.

Por razones ajenas a la entidad y a la Diputación Foral de Bizkaia no ha sido posible iniciar la prestación del acogimiento residencial de media estancia.

El acogimiento residencial de media estancia establecía una cobertura de 30 plazas.

La no disponibilidad de las plazas residenciales, ha obligado a incrementar las plazas de atención comunitaria, con y sin apoyo alojativo, y así como el personal dedicado a su atención.

III

En el convenio se habían convenido 30 plazas residenciales, y 20 plazas de atención de apoyo comunitario.

Con la presente modificación se amplia la atención de apoyo comunitario en 15 plazas, siendo 35 el total de plazas de cobertura, siendo la fecha en la que se implementó dicha ampliación el 1 de julio de 2024.

Se prevé que el inicio del recurso residencial tenga lugar el 1 de junio de 2025.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Era berean, Egoitza Zerbitzua ireki arte, 2024ko uztailaren 1etik 2025eko maiatzaren 31ra arte, Arreta Komunitarioko Zerbitzua beste 8 plazaz handitu behar da, eta plaza horiek ostatu-laguntza izan behar dute.

Asimismo se ha considerado que hasta la apertura del Servicio Residencial, desde el 1 de julio de 2024 hasta el 31 de mayo de 2025, el Servicio de Atención Comunitaria debe ser ampliada por 8 plazas adicionales, teniendo dichas plazas apoyo alojativo.

Azken batean, hitzarmenaren prezioa aldatzeko sinatutako Hitzarmena aldatu behar da, Egoitza Zerbitzuaren hasiera-data (lehen 2024ko urtarrilaren 1a zen, eta kronograma berriarekin, zerbitzua 2025eko ekainaren 1ean hasiko da), gauzatu gabeko zenbatekoengatik, egoitza-baliabideak sortutako gastuengatik, Arreta Komunitarioko Zerbitzua handitzeagatik eta Hitzarmenari atxikitako langileak aldatzeagatik.

En definitiva, se debe modificar el Convenio suscrito para modificar el precio del convenio, fecha de inicio del Servicio Residencial (anteriormente era el 1 de enero de 2024, y con el nuevo cronograma, el servicio comenzará el 1 de junio de 2025) por los importes no ejecutados, por los gastos generados por el recurso Residencial, la ampliación del Servicio de Atención Comunitaria, la modificación del personal adscrito al Convenio.

ASOCIACIÓN INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI, EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTOA, IRSE-EBI elkarteak, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren oniritziarekin, Arreta Komunitarioko Zerbitzuaren estaldura zabaltzen hasi zen, hain zuzen ere 2024ko uztailaren 1etik aurrera, eta Egoitza-zerbitzua abian jartzeak eta langileak handitzeak arazoak sortu dituenez ondorioz uste da beharrezkoa dela hitzarmenaren indarraldia urtebete luzatzea. Prestazio horiek SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAIKA ZENTIMO (653.888,71 €) kostua dute.

La ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI, con el visto bueno de la Dirección General de Inclusión Social comenzó a prestar la ampliación de la cobertura del Servicio de Atención Comunitaria desde 1 de julio de 2024, y dada la problemática de la puesta en marcha del Servicio Residencial, ampliación del personal, y por lo que se considera necesario ampliar un año de vigencia del covenio, dichas prestaciones tienen un coste de SEISCIENTOS CINCUENTA Y TRES MIL OCHOCIENTOS OCHENTA Y OCHO EUROS CON SETENTA Y UN CÉNTIMOS (653.888,71€).

Dicha modificación se justifica por la obligación que tiene la Diputación Foral de Bizkaia, dado que la Ley de Servicios Sociales establece que es un derecho subjetivo de las mujeres víctimas de la violencia machista el de recibir una atención integral e inmediata.

Dicha modificación se justifica por la obligación que tiene la Diputación Foral de Bizkaia, dado que la Ley de Servicios Sociales establece que es un derecho subjetivo de las mujeres víctimas de la violencia machista el de recibir una atención integral e inmediata.

Hitzarmenaren xede diren ekintzak 2023ko urtarrilaren 1etik 2025ko abenduaren 31ra bitartean egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak gehienez ere aurreikusi duen aurrekontua, aldaketa honekin, BI MILIOI ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (2.753.736,62 €).

El presupuesto total máximo previsto para la realización de las acciones objeto del Convenio en el periodo 1 de diciembre de 2023 a 31 de diciembre de 2025 a cargo de esta Diputación Foral de Bizkaia con la presente modificación es de DOS MILLONES SETECIENTOS CINCUENTA Y TRES MIL SETECIENTOS TREINTA Y SEIS EUROS CON SESENTA Y DOS CÉNTIMOS (2.753.736,62 €).

Aurreikusitako aurrekontua honako urterokoei

El presupuesto previsto responde a las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dagokie:

siguientes anualidades:

| HITZARMENTAREN GUZTIZKO PREZIOA / PRECIO TOTAL DEL CONVENIO | | | |
|---|---|---|---|
| URTEA / AÑO | HASIERAKOA / INICIAL | ALDATUTA / MODIFICADO (A+) | EGUNGOA / ACTUAL |
| 2023 | 297.250€ | 0€ | 297.250€ |
| 2024 | 1.802.597,91 € | - 861.382,76 € | 941.215,15 € |
| 2025 | 0€ | +1.515.271,47 € | 1.515.271,47 € |
| GUZTIRA/TOTAL | 2.099.847,91€ | + 653.888,71 € | 2.753.736,62 € |

IV

Hitzarmenari atxikitako langileak, prestazioak eta baliabide materialak aldatzen direnez, eta baita hitzarmenaren indarraldia ere, eta aldaketa horiek betebehar ekonomikoak handitzea dakartenez, klausula hauek aldatzea proposatzen da:

HIRUGARRENA.- Zerbitzua betetzeko gaitasuna

SEIGARRENA.- Zerbitzuaren ezaugarriak eta baliabide materialak.

ZORTZIGARRENA.- Giza baliabideak.

HAMALAUGARRENA.- Alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak.

HAMABOSTGARRENA.- Lankidetzaren edukia.

HAMAZORTZIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

3. ERANSKINA- HITZARMENARI DAGOKION DIRU SARRERA ETA GASTUEN AURREKONTUA

Adierazitako guztia kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskadiko Birgizarteratze Institutoa Elkartea erakundeak

ERABAKI DUTE

LEHENENGOA. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondorioekin, 2023ko azaroaren 30an Bizkaiko Foru Aldundiaren eta EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTOA ELKARTEAREN (IFZ: G48242259) artean INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI BALORAZIO ETA ARRETA

IV

Dado que se modifica el personal adscrito al convenio, las prestaciones, y los recursos materiales, la vigencia del convenio, y dichas modificaciones suponen un incremento de obligaciones económicas, se propone modificar las siguientes cláusulas:

TERCERA.- Capacidad de cobertura del servicio

SEXTA.- Características y recursos materiales del Servicio.

OCTAVA.- Recursos humanos.

DECIMOCUARTA- Obligaciones, y compromisos económicos asumidos por las partes.

DECIMOQUINTA.- Contenido de la colaboración.

DECIMOCTAVA.- Vigencia del convenio.

ANEXO 3- PRESUPUESTO DE INGRESOS Y GASTOS DEL CONVENIO

Que teniendo en cuenta todo lo expuesto, la Diputación Foral de Bizkaia y la Asociacion Instituto de Reintegracion Social de Euskadi.

ACUERDAN

PRIMERA.- Modificar, con efectos retroactivos desde el 1 de enero de 2024 el Convenio de colaboración suscrito 30 de noviembre de 2023 entre la Diputación Foral de Bizkaia y la ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI (NIF G48242259) para la prestación del UN

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ESPEZIALIZATUKO ZERBITZUA EMATEKO sinatu zuten lankidetza hitzarmena aldatzea.

Hirugarren, seigarren, zortzigarren, hamalaugarren, hamabosgarren eta hemezortzigarren klausulak honela geratzen dira idatzita:

HIRUGARRENA.- Zerbitzua betetzeko gaitasuna

Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeentzako Balorazio eta Arreta Espezializatuko Zerbitzuaren estaldura-ahalmenak honako hauek barne hartuko ditu:

- Egoitzako 30 plaza.
- 35 arreta-plaza eremu komunitarioan, honako arreta-tipologia honekin:
  - **12 plazak** ostatu hartu ahal izango dute bi etxebizitzatan, eta intentsitate altuko eta ertaineko hezkuntza-arreta emango zaie ardurapean adingabeak dituzten edo ez dituzten emakumeei.
  - **6 plazak** erkidegoko ostatu-laguntza izango dute. Intentsitate-maila desberdinak baliatuz eman daiteke laguntza, eskaera, etapa eta ezaugarriak kontuan hartuta.
  - **17 plaza** ostatu hartzeko laguntzarik gabe.

- **8 plaza itxarote-zerbitzuan. Plaza horiek ostatu hartzeko laguntza izango dute babesgabetasunaren balorazioa egiten den bitartean eta ostatu hartzeko laguntza duten arreta komunitarioko plazak daudenean.**

Arreta testuinguruan jarrita emango da baliabide komunitarioan.

Behin-behinekotasunari dagokionez, esku-hartzea 6 HILABETEKO aldietan egingo da, eta epe hori gehienez ere bi urtera luza daiteke. Epe hori baino lehen amaitu ahal izango da proiektu pilotu hau bukatzen bada.

SERVICIO DE VALORACIÓN Y ATENCIÓN ESPECIALIZADA A MUJERES VÍCTIMAS DE LA VIOLENCIA MACHISTA.

Quedando la redacción de las cláusulas tercera, sexta, octava, decimocuarta, decimoquinta, decimoctava como sigue:

TERCERA.- Capacidad de cobertura del servicio

La capacidad de cobertura del Servicio de Valoración y Atención Especializada para Mujeres Víctimas de Violencia Machista comprenderá:

- 30 plazas residenciales.
- 35 plazas de atención el ámbito comunitario, con la siguiente tipología de atención:
  - **12 plazas** contarán con apoyo alojativo en tres viviendas, con atención educativa de alta y media intensidad para mujeres con o sin menores a cargo.
  - **6 plazas** contaran con apoyo alojativo comunitario. Se podrá realizar acompañamiento con distintos niveles de intensidad atendiendo a su demanda, etapa y características.
  - **17 plazas** sin apoyo alojativo

- **8 plazas de Servicio de Espera. Dichas plazas contarán con apoyo alojativo en tanto y cuando se realice la valoración de la desprotección y se disponga de plazas atención comunitaria con apoyo alojativo.**

La atención se prestará de forma contextualizada en el lugar donde se encuentre la mujer.

En cuanto a la temporalidad, se realizará el acogimiento y/o la intervención en periodos de 6 MESES ampliables motivadamente, pudiendo finalizar antes de ese plazo si finalizase el presente proyecto piloto.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO BALORAZIO ETA ARRETA ESPEZIALIZATUKO ZERBITZUAREN KRONOGRAMA:

- INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN BABESGABETASUNA BALORATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA: 2023ko abenduaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra.

- EGONALDI ERTAINEKO EGOITZA-HARRERA: 2025ko ekainaren 1etik 2025ko abenduaren 31ra.

- ERKIDEGOAN ESKU HARTZEA: 2024ko urtarrilaren 1etik 2025ko abenduaren 31ra.

2024ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean estaldura-pazak 20 izango dira.

2024ko uztailaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra 35 plaza izango dira.

- ITXAROTE-ZERBITZUA: 2024ko uztailaren 1etik 2025eko maiatzaren 31ra.

SEIGARRENA.- Zerbitzuaren ezaugarriak eta baliabide materialak.

Indarkeria Matxistatik Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak Erakundearen esku jarriko du egoitza-harrerarako eta laguntza teknikoaren garapenerako higiezin bat.

CRONOGRAMA DEL SERVICIO DEL SERVICIO DE VALORACIÓN Y ATENCIÓN ESPECIALIZADA PARA MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA:

- APOYO TECNICO PARA LA VALORACIÓN DE LA DESPROTECCIÓN DE LAS MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA: desde el 1 de diciembre de 2023 al 31 de diciembre de 2025.

- ACOGIMIENTO RESIDENCIAL DE MEDIA INSTANCIA: desde el día 1 de junio de 2025 al 31 de diciembre de 2025.

- INTERVENCIÓN EN EL AMBITO COMUNITARIO: desde el día 1 de enero de 2024 al 31 de diciembre de 2025.

Del 1 de enero al 30 de junio de 2024 las plazas de cobertura serán 20 plazas.

Desde el 1 de julio de 2024 al 31 de diciembre de 2025 serán 35 plazas.-

- SERVICIO DE ESPERA: desde el 1 de julio de 2024 al 31 de mayo de 2025.

SEXTA.- Características y recursos materiales del Servicio.

El Servicio de Protección frente a la Violencia Machista y Apoyo a las Familias pondrá a disposición de la Entidad un inmueble para el acogimiento residencial y el desarrollo de la prestación de apoyo técnico.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Erakundeak honako hauek emango ditu komunitatean esku hartzeko zerbitzua garatzeko, ostatu hartzeko laguntzarekin:

Gutxienez hiru gela, egongela, sukaldea eta bainugela dituzten hiru etxebizitza.

Erakundeak eremu komunitarioan ostatu egokiak eman beharko dizkie behar duten emakumeei, haien beharretara egokituta. (6 plaza)

Eguneko Arreta Zerbitzua Indarkeria Matxistatik Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak utzitako eraikin batean emango da. 150 m2 inguru ditu, eta zerbitzua emateko adina bulego, sukaldea, eta itxarongela.

ZORTZIGARRENA.- Giza baliabideak.

Talde horrek, gutxienez, kide hauek izan beharko ditu:

BABESGABETASUNA BALORATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA:

- Gizarte Lanean graduatutako pertsona bat (2023/12/01-2023/12/31).

- Gizarte Lanean graduatutako BI pertsona (2024/01/01-2025/12/31)

EGONALDI ERTAINEKO EGOITZA-HARRERA:(2025/06/01etik 2025/12/31ra)

La entidad proporcionará para el desarrollo del servicio de intervención en el ámbito comunitario con apoyo alojativo:

Tres viviendas con una distribución mínima de tres habitaciones, salon comedor, cocina y baño.

La entidad deberá facilitar a las mujeres que lo precisen alojamientos en el ámbito comunitario adecuadas a las necesidades de las mismas. (6 plazas)

El desarrollo de la prestación de intervención en el ámbito comunitario se realizará en un inmueble facilitado por el Servicio de Protección frente a la Violencia Machista y Apoyo a las Familias, que dispone de aproximadamente 150 m2, con despachos suficientes para realizar la prestación, cocina, sala de espera y sala de reuniones

OCTAVA.- Recursos humanos.

Dicho equipo deberá contar, al menos, con los siguientes miembros:

APOYO TECNICO A LA VALORACIÓN DE LA DESPROTECCIÓN:

- UN/ A graduado/a en Trabajo Social (01/12/2023-31-12-2023).

- DOS graduados/as en Trabajo Social (1/01/2024 a 31/12/2025)

ACOGIMIENTO RESIDENCIAL DE MEDIA ESTANCIA: (01/06/2025 a 31/12/2025)

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Arduradun BAT (1)

- Gizarte-langileen koordinatzaile BAT (1) (balorazio espezializatuei laguntza teknikoa emateko eginkizunak ere beteko ditu)

- Psikologian graduatutako pertsona BAT (1)

- Gizarte Hezkuntzan graduatutako BEDERATZI (9) pertsona

- Gizarte inklusioa sustatzeko BOST (5) teknikari

- Etxeko BI (2) laguntzaile

KOMUNITATEAN ESKU HARTZEA:

- Arduradun BAT (1)

- Psikologian graduatutako pertsona BAT

- Gizarte Hezkuntzan graduatutako LAU (4) pertsona**

- Gizarteratzeko teknikari BAT lanaldiaren % 50ean

****2024ko uztailaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arte, Gizarte-Hezkuntzan graduatutako teknikariak 6 izango dira**, Zerbitzua zabaldu egiten delako.

- UNA (1) Responsable

- UNA (1) Coordinadora Trabajadora Social (que realizará funciones asimismo funciones de apoyo técnico a las valoraciones especializadas)

- UN/A (1) Graduado/a en Psicólogo/a

- NUEVE (9) Graduado/as en Educación Social

- CINCO (5) Técnicas/os en Integración Social

- DOS (2) Auxiliares Doméstico/a

INTERVENCION EN EL AMBITO COMUNITARIO:

- UNA (1) Responsable

- UN/A Graduada/o en Psicología

- CUATRO(4) Graduado/a en Educación Social**

- UN/A Técnica/o en Integración Social al 50% de su jornada

**Desde el **1 de julio de 2024 hasta el 31 de diciembre de 2025**, el **personal técnico graduado/a en Educación Social pasará a ser de 6 personas** debido a la ampliación del Servicio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ITXAROTE-ZERBITZUA:

- BAT (1) Gizarte-Hezkuntzan Graduatua.

Langileen bajak direla-eta arretako lanbide-profilak aldatzea planteatzen bada, Jarraipen Batzordearen barruan onartu ahal izango da, betiere aurrekontua handitzea ez badakar.

Langile abokatuei dagozkien lan-kontratuetan, kontratuaren xedea den jarduera egiteko bateraezintasun-klausula bat gehituko da, eta honako honekin izango du bateraezintasuna: ustez etxeko indarkeriarekin zerikusia duten delituak edo sexu-askatasunaren aurkako delituak egin dituzten pertsonak epaiketa batean ordezkatzea eta defendatzea.

Teknikariek indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko prestakuntza izango dute, eta gutxienez urte 1eko esperientzia indarkeria matxistaren biktimekiko esku-hartze sozialean.

Aldi baterako ordezkapenak egiteko langileak kontratatzen direnean, nahikoa izango da indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko prestakuntza izatea eta gutxienez 6 hilabeteko esperientzia izatea esku-hartze sozialean.

Goian azaldu diren betebeharrak betetzeko, entitateak hitzarmena sinatzen denetik 10 egun naturaleko epean hitzarmenari atxikitako langileen zerrenda bidali beharko du; bertan bakoitzaren titulazioa, kategoria, jardunaldia eta antzinatasuna zehaztu beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundian jasota ez dauden langileen titulazioen kopiarekin batera, bai eta haien "curriculum vitaea" ere, hitzarmen hau indarrean jartzen den egunean eguneratuta.

Bestalde, programaren lan-taldearen kide bakoitzak Sexu Delituen Erregistroan inskribatuta ez dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Erakunde kolaboratzailearen lantaldean edozein figura aldatzen bada, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio Bizkaiko Foru Aldundiari eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko, curriculuma, bere tituluen kopiak eta burutuko

SERVICIO DE ESPERA:

- UN/A (1) Graduado/a en Educación Social

En el caso de que por bajas del personal se plantee la modificación de los perfiles profesionales de atención, podrá aprobarse en el seno de la Comisión de Seguimiento, siempre que no implique incremento presupuestario.

En los contratos laborales correspondientes al personal letrado se incluirá una cláusula de incompatibilidad del ejercicio de la actividad objeto de contrato con la representación y defensa en juicio de personas que presuntamente hayan cometido delitos relacionados con la violencia doméstica o delitos contra la libertad sexual.

El personal técnico contará con formación en atención a personas víctimas de violencia machista y experiencia minima de 1 años en intervención social con víctimas de violencia machista.

En las contrataciones de personal por sustituciones temporales, será suficiente contar con formación en atención a víctimas de violencia machista y con una experiencia mínima de 6 meses en intervención social.

En cumplimento de las obligaciones arriba descritas la entidad deberá remitir en el plazo de 10 días naturales desde la firma del Convenio la relación del personal adscrito al convenio, indicando titulación, categoría, jornada antigüedad, junto con una copia de las titulaciones del personal, así como de sus "currículum vitae" que no consten en Diputación Foral de Bizkaia, actualizadas a la fecha de entrada en vigor del presente convenio.

Asimismo se deberá aportar también un Certificado Negativo de no estar inscrito/a en el Registro de Delincuentes Sexuales, por cada integrante del equipo del Programa.

Cualquier cambio de figuras en el equipo de trabajo que se produzca en la Entidad Colaboradora, deberá ser comunicado con antelación a la Diputación Foral de Bizkaia para que se pueda verificar que se cumplen los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WWRJ-IAXN-QYYN-SP2H
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dituen zeregin zehatzen zehaztapena erantsiko dira.

requisitos exigidos, adjuntando un currículum del o de la profesional, copia de su titulación, así como la especificación de las funciones concretas que desempeñará.

Indarkeria Matxistatik Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak aldez aurreko oniritzia eman beharko dio klausulan ezarritakoaren aldean langileak aldatzea dakarren edozein laneratzeri.

El Servicio de Protección frente a la Violencia Machista y de Apoyo a las Familias deberá dar el visto bueno previo a cualquier incorporación que suponga un cambio de personal respecto a lo establecido en esta claúsula.

Bestela, langile horiek ezin izango dira gastu gisa kontabilizatu hitzarmen honen I-II eranskinean eta hamabosgarren klausulan araututako justifikazio-kontuan.

En caso contrario, dicho personal no podrá ser objeto de contabilización como gasto imputable en la cuenta justificativa regulada en el Anexo I-II y en la cláusula decimoquinta del presente convenio.

Halaber, gastua ezin izango zaio egotzi aldez aurretik baliozkotu ez den edozein profesionali.

Tampoco será imputable el gasto respecto de cualquier profesional que no haya sido validado previamente.

Talde profesionalak Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako prestakuntza-saioetan parte hartu beharko du, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren kontura izango dira saio horietan matrikulatzeko gastuak.

El equipo profesional deberá participar en las sesiones de formación ofrecidas por la Diputación Foral de Bizkaia, siendo por cuenta de Diputación Foral de Bizkaia los gastos relativos a la matrícula en los mismos.

HAMALAUGARRENA.- Alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak.

Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du parte hartzen duen erakundeari gehienez ere BI MILIOI ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (2.753.736,62€) emateko, 2023. 2024 eta 2025 urteetarako, hau da, 2023ko abenduaren 1etik 2025ko abenduaren 31ra bitartean indarkeria matxista jasaten duten emakumeei Balorazio eta Arreta Espezializatuko Zerbitzua emateagatiko esleipenaren kontzepturako, betiere honako baldintza hauen arabera:

Honako urtekari hauen arabera:

2023. urtea: 297.250 €

- 2023. URTEA: 297,250 EURO.

Hitzarmena indarrean jartzen denean, BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROKO (297.250 €) ordainketa bakarra egingo da, zerbitzua abian jartzeko prestaketa-jarduerei

DECIMOCUARTA- Obligaciones, y compromisos económicos asumidos por las partes.

